


eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

**UPV/EHU_n DOKTOREGO ONDOKO PRESTAKUNTZA
PROGRAMETAN SARTU ARTE DOKTORE BERRIAK
KONTRATATZEKO DEIALDIA**

2016

HITZAURREA

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak, EAEko ikerketa zentro nagusia den aldetik, unibertsitateko tituludunak ikerketan prestatzeko erantzukizuna du. Hori dela eta, ikertzaileak prestatzeko bide ematen duten doktorego tesiak egitea sustatzen du.

Ikertzaileen prestakuntzan, hurrengo urratsa doktorego ondoko aldia da; aldi horretan, prestakuntza intentsiboa eta espezializatua egiten da doktorego tesia defendatu berri duten doktoreekin. Mugatutako denbora batean egiten da lan hori.

Bi aldi horien artean, eta ikerketa ibilbidearen doktorego aurreko eta doktorego ondoko aldien berezko denbora zikloen ondorioz, normala da prestakuntza prozesua zaildu dezaketen denbora tarteak egotea; horrez gainera, baliabide publikoekin finantzatutako aurretiazko prestakuntza prozesuaren ondoriozko giza kapitala galtzea ere ekar dezakete.

Deialdi honen helburua, hain zuzen, doktoreak fidelizatzea da, doktorego tesiak defendatzen dituztenetik doktorego ondoko edo espezializazioko hurrengo prestakuntza aldira igarotzen diren bitartean.

Deialdi honetako diru laguntza, guztira, 500.000 eurokoa da, B27 Programa Kontratuko B27 jarduketaz finantzatuta. Hona jarduketaren izena: Doktore aurreko (klasikoa eta COFUND) eta doktore ondoko laguntzak sustatzea eta doktoreak ingurune sozioekonomikoan txertatzen bultzatzea. Zenbateko hori deialdi honen babesean eta hura indarrean dagoen artean formalizatuko diren kontratuen kostua ordaintzeko erabiliko da.

Hala, Ikerketa, Garapen eta Berrikuntza Batzordeak (aurrerantzean, IGBB) proposamena eginda eta Gobernu Kontseiluak 2016ko apirilaren 21ean onespena emanda, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak honako deialdi hau argitaratzea erabaki du, jarraian zehazten den moduan:

1. OINARRIA. DEIALDIAREN HELBURUA

1.1. Deialdi honen helburua da ikasturte honetan UPV/EHUren ikertaldeen baitan doktore titulua eskuratu duten ikertzaileei lan kontratu bat eskaintzea, beren ikerketa jarduerari jarraipena emateko, doktorego aurreko aldiaren eta doktorego ondoko aldiaren artean, eta azkenean, beren doktorego tesiarekin lotutako argitalpenak egiteko.

2. OINARRIA. HAUTAGAIEN BETEBEHARRAK

Kontratu hauetarako hautagaiak honako betebeharrak izan beharko dituzte eskaerak aurkezteko ezarritako epean:

- a. Arloan eskumena duten ministerioen FPU eta FPI programetako edo UPV/EHUren nahiz Eusko Jaurlaritzaren deialdietako ikertzaileak prestatzeko laguntzak jasorik izatea (doktorego aurreko laguntzak), eta horiek aplikatzeko zentroa UPV/EHUren baitakoa izatea.
- b. Lehenago aipatutako laguntza aplikatzeko zentroa Osakidetza ospitale bat izanez gero, tesiaren zuzendariak UPV/EHUrekin funtzionario, estatutu edo lan kontratu bidezko lotura duela egiaztatu beharko du nahitaez.
- c. Doktorego tesia UPV/EHUⁿ defendatua izatea (edo UPV/EHUrekin tutorekidetza hitzarmen baten bidez) eta kalifikazio maximoa duen

doktore titulua eskatuta izatea tesiari dagokion doktorego programan, baita nahitaez "Cum laude" aipamena izatea ere.

- d. Gehienez ere, lau hilabete igarota izatea a) eta b) ataletan aipatutako doktorego aurreko laguntza amaitutako egunaren eta doktorego tesia defendatutako egunaren artean. Nazioarteko tesien kasuan, ezarritako epea sei hilabetekoa izango da.
- e. Eskaera aurkeztea doktorego tesia defendatutako egunetik bi hilabete igaro baino lehen.
- f. Eskatzaileak baimena izatea doktorego tesia egin duen UPV/EHUko ikertalde berari lotuta jarraitzeko.
- g. Bere doktorego tesiaren harira egindako argitalpen bat egiaztatzea, gutxienez, CNEAIk jakintza arlo bakoitzean dituen irizpideen araberrako ekarpen baten baliokidea (Ebazpena, 2012ko azaroaren 19koa, Ikerketa Jarduera Ebaluatzeke Batzorde Nazionalarena, ebaluazio eremu bakoitzeko irizpide espezifikoak ezartzeari buruzkoa. BOE, 286 zk., 2015-11-30koa).

3. OINARRIA. ESKAERAK AURKEZTEA

3.1. Deialdi hau hurrengo deialdia argitaratu arte edo hori amaitu dela argitaratu arte egongo da indarrean, betiere helburu horietarako aurrekontu kreditua bada. Eskaerak modu jarraituan ebatziko dira, aurkezten direnetik lau hilabete igaro baino lehen.

3.2. **Eskaerak aurkezteko lekua.** Eskaerak UPV/EHUko Ikerketaren arloko errektoreordeari bidaliko zaizkio. Arabako, Bizkaiko edo Gipuzkoako campusetako erregistro orokorretako batean aurkez daitezke, hau da, UPV/EHUren 2012ko maiatzaren 16ko Erabakian aipatzen diren bulegoetako batean (EHAA, 2012ko ekainaren 18koa). Edo, bestela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/92 Legearen 38.4 artikuluan adierazitako prozeduren bitartez ere aurkeztu ahal izango dira eskaerak.

3.3. Dokumentuak:

- a. Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren web orrian dagoen ereduaren araberrako eskaera (1. dokumentua).
- b. Tesiaren zuzendariaren egiaztagiria, saileko/institutuko zuzendariaren oniritziarekin, eta eskatzaileari doktorego tesia egin duen UPV/EHUko ikertalde berari lotuta jarraitzeko baimena ematen zaiola adierazita. Ikerketaren arloko Errektoreordetzaren web orrian dagoen ereduaren araberrako (2. dokumentua).
- c. NANaren edo pasaportearen fotokopia.
- d. Masterreko/doktorego programako ikasketa espedientearen kopia erkatua. Baldintza hori ez zaie eskatuko ikasketa horiek UPV/EHUⁿ egin eta amaitu dituzten ikasleei.
- e. Doktore tituluaren kopia, edo hura eskatu izanaren frogagiria, eta, hala badagokio, Europako edo nazioarteko doktorego tesiaren egiaztagiria.
- f. Doktorego tesiaren harira egindako argitalpenak eta patenteak.
- g. Doktorego tesiarekin zerikusirik ez duten argitalpenak.
- h. Egin beharreko lanaren izenburua eta kontratu aldirako lan egitasmoa, orri bateko luzera, gehienez.

- i. Merezimenduak justifika ditzaketen dokumentuak (ikus 4.b, 4.c eta 4.f oinarriak).
- j. Doktorego tesiaren zuzendariaren curriculum vitae delakoa.
- k. Euskara mailaren egiaztagiria.

3.4. Ikerketaren arloko Errektoreordetzak egindako deialdietan, ikertzaileek UPV/EHUko bi hizkuntza ofizialetako batean edo ingelesez aurkeztu ahalko ditu dokumentuak.

Euskaraz aurkeztutako dokumentuak euskaraz ez dakiten ebaluatzaileek ebaluatu beharra dagoela ikusiz gero, Errektoreordetza harremanetan jarriko da eskatzailearekin bi aukera hauek eskaintzeko:

- a. Eskatzaileak epe gehigarri bat izan dezan dokumentuak gaztelaniara edo ingelesera itzultzeko.
- b. Errektoreordetzak enpresa espezializatu bati itzultzeko eskatzea. Kasu horretan, eskatzaileak arrazoizko epe bat izango du itzulpena balidatzeko, betiere ebaluatzaera bidali aurretik.

4. OINARRIA. BALORAZIO IRIZPIDEAK

- a. Europako edo nazioarteko doktorego tesia (15 puntu).
- b. Doktorego tesiaren harira egindako argitalpenak eta patenteak (25 puntu).
- c. Doktorego tesiarekin zerikusirik ez duten beste argitalpen batzuk (5 puntu).
- d. Masterreko/doktorego programako ikasketa espedientea (5 puntu).
- e. Lan egitasmoa (10 puntu).
- f. Beste zenbait merezimendu: egonaldiak beste ikergune batzuetan, biltzarrak, ikerketaren eta hizkuntzen arloko ikastaro espezifikoak (15 puntu).
- g. Doktorego tesiaren zuzendariaren azken 5 urteotako ikerketa ibilbidea (20 puntu).
- h. Euskara maila (5 puntu).

Adierazitako puntuazioa lortzeko, euskara mailaren egiaztagiria aurkeztu behar da, honako hauen arabera:

- C1 mailaren edo goragokoaren egiaztagiria eta baliokideenak: 5 puntu
- B2 mailaren egiaztagiria eta baliokideenak: 3 puntu
- Ez da baloratuko adierazitakoak baino maila baxuagoko egiaztagiririk.

Egiaztagiriei dagokienez, azaroaren 9ko 297/2010 Dekretuan ezarritako baliokidetasunak hartuko dira kontuan (euskararen jakite maila egiaztatzen duten tituluak eta ziurtagiriak baliokidetu eta Hizkuntzen Europako Erreferentzi Marko Bateratuko mailekin parekatzeko dena).

5. OINARRIA. EBAZPENA ETA KONTRATUEN ESLEIPENA

5.1. Ikerketaren Gestioko Zuzendaritzak kudeatuko ditu deialdiko eskaerak, eta hark, deialdiko baldintzak bete direla egiaztatuta, Ikerketaren arloko errektoreordeari proposatuko dio deialdia ebazteko.

5.2. Ikerketaren arloko errektoreordeak deialdia ebatziko du, eta hautaketaren emaitza ezagutaraziko du unibertsitatearen webgunearen bidez edo hautagaiei jakinarazpena bidaliz.

5.3. Erabakiaren aurka berraztertzeke errekurtsua jarri ahal izango da hilabeteko epean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legeko 116. eta 117. artikuluetan zehaztutakoari jarraituz. Era berean, erabakiaren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua jarri ahal izango da bi hilabeteko epean, erabakia iragarri eta hurrengo egunetik hasita.

6. OINARRIA. KONTRATUAREN EZAUGARRIAK ETA ONURADUNEN ERREGIMENA

6.1. Hautatutako pertsonak "ikerketa zientifiko eta teknikoko proiektu espezifikoak egiteko kontratua" modalitatearen pean kontratatuko dira eta, beraz, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzari buruzko ekainaren 1eko 14/2001 Legearen hogeita hirugarren xedapen gehigarrian ezarritakoa aplikatuko zaie.

6.2. Kontratua lanaldi partzialekoa izango da (% 50). Kontratu hori UPV/EHUⁿ lan egiten duten irakasle-ikertzaile kontratudunen hitzarmen kolektiboan jasotakoaren arabera sinatuko da (EHAA, 2010-12-31koa).

6.3. Kontratuak gehienez bederatzi hilabete iraungo du, Erabakian ezarritako esleipen egunetik hasita.

6.4. Kontratua esleitzean, hautatutako pertsonak dokumentu hauek aurkeztu beharko ditu Ikerketaren arloko Errektoreordetzan:

- a. Banakako adierazpena aurkeztu beharko du, kontratua eta deialdian eta Langileen Atalean ezarritako baldintzak eta betebeharrak onartzen dituela adieraziz.
- b. Kontratua sinatzeko bateraezintasunik ez duela adierazteko zinpeko adierazpena.
- c. Bankuko datuak: dirua jasotzeko erakundea, sukurtsala eta kontu zenbakia, eta kontu horren titularraren NAN edo pasaporte, eta Gizarte Segurantzaren afiliazio zenbakia.
- d. Lanean hasi dela jasotzen duen agiria.

6.5. Kontratu hau jasotzeak honako betebeharrak hauek ekarriko dizkio hautatuari:

- Atxikitako sailean edo institutuan lanean hastea.
- Atxikita dauden sail, institutu edo zentroaren funtzionamendurako arauak jarraitzea arduraldi, eginkizun, ordutegi eta oporrei dagokienez.
- Beren lana atxikitako sail, institutu edo zentroan betetzea.
- Diru laguntza jasotzearekin zerikusia duten txosten, formulario eta gainerako agiriak betetzea, Ikerketaren Gestioko Zuzendaritzak edo deialdia gestionatzen duten zerbitzuek hala eskatzen dietenean.
- Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetzari jakinaraztea formalizatutako kontratuari uko egiten diotela, edo kontratu horrek dituen helburuak lortzea galarazten dieten jazoerak edo kalteak izan dituztela. Diru laguntza hauek jasotako denboran izandako beste laguntza edo ordainsarien berri ematea, espresuki.
- Diru laguntzak iraun bitartean egindako ikerketa jardueretatik eratorritako argitalpenetan eta bestelako emaitzetan UPV/EHUko Ikerketaren arloko Errektoreordetzak doktorego berriak kontratatzeke eta horiek doktorego ondoko prestakuntza programetan sartzeko ematen dituen laguntzen deialdia aipatzea.

- Eskumena duten organoek egin ditzaketen finantza froga eta finantza kontrolak betetzea eta eskatutako informazio guztia ematea.
- Egindako ikerketatik eratorritako argitalpen, patente, erabilgarritasun eredu eta jabetza intelektualeko objektu eta obra guztien titularra UPV/EHU dela aitortzea, jabetza industrial eta intelektual horien asmatzailea ikertzaileari aitortuz.
- Kontratua onartuz gero, berekin dakar deialdi honetan jarritako arauak errespetatzea, baita Ikerketaren arloko Errektoreordetzak eta diru laguntzak atxikita daudeneko sail eta institutuak, dauzkaten eskumenei jarraituta, lana ikuskatzeko eta ebaluatzeko ezarritako arauak errespetatzea ere.

6.6. Kontratua lortzeak ez du unibertsitateko ikasketa ofizialetan edo berezko tituluetan prezio publikoak ordaintzetik salbuetsiko.

6.7. Kontratuen onuradunek Ikerketako Zerbitzu Nagusiak (SGIker) ez ezik, atxikitako ikertaldearen azpiegiturak eta materiala ere erabiltzeko eskubidea dute. Era berean, eskubidea izango dute sailaren edo institutuaren ikerketa baliabideak erabiltzeko, baita ikerketa egiten ari diren ikastegiko baliabideak erabiltzeko ere, horretarako ezarrita dauden baldintzei men eginez.

6.8. Deialdi honen babesean formalizatutako kontratua ondorengo arrazoi hauetako bat dela medio etengo da:

- a. Uko egitea.
- b. Baliogabetzea, betebeharrak bete ez dituelako edo laguntza emateko kontuan hartutako baldintzak aldatu egin direlako.
- c. Gerora sortutako bateraezintasuna.

6.9. Kontratuen onuradunek kolaborazio osagarriak egin ditzakete proposatutako ikerketa jarduerarekin lotutako irakats eginkizunetan, urtean 30 orduz, gehienez. Horretarako, lehenenik, inplikaturako sailarekin adostu beharko du eta UPV/EHUko langileentzako bateraezintasunei buruzko arautegia bete beharko da. Hau da, ezin dira irakasgaien arduraduna izan, ezin dute probarik egin edo ezin dituzte ikasleak ebaluatu.

AZKEN XEDAPENA

Interesdunak deialdiaren, deialdiko oinarrien eta deialditik eratorritako administrazio egintzen kontra egiteko aukera du, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legeak eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legeak ezarritako epean eta moduan.

Leioan, 2016ko apirilaren 21ean

Fernando Plazaola Muguruza
Ikerketaren arloko errektoreordea
Vicerrector de Investigación